



Lucio Urtubiaren bizitza kontatzen duen komiki honek hiru denboralero nagusi dauzka. Flashback eta flashforward ezberdinen bidez berre-raiki du Belatz irudigile nafarrak anarkista cascantarraren bizitza.

Liburuaren muina, ezin bestela izan, Lucio 1954. urtean Parisera

heltzen denetik 1980ko hamarkadara arte doan tarte da. Denbora-lerro horretan azaltzen dira erbestea, CNT, desjabetzeak, poliziaren jazarpena, 68ko Maiatza, inprimategi klandestinoak, aitatasuna, kartzela... Lucio-ren bizitza kontatzen saiatu diren lanetatik ezagutzen ditugun hain-

bat gertakizun, baina begirada berri baten argitan.

Bigarren denbora-lerroa iragan urruna da, Lucio-ren haurtzaroa. Nafar Erriberaren kolore arreak dituzten irudi horietan gerraostea azaltzen da, gordin: miseria, *Cara al sol*, fusilamenduak, gosea, kazikeak,



BENETAN, LUCIO? EGIATAN? KAR-KAR. EZ DA SINESTEOA! POLIZIAK LAGUNDU ZIZUN BURDINAZKO ATE BAT LAPURTZEN INPRIMATEGI LIBERTARIOAN JARTZEKO? KAR-KAR


BAI BA... NEUK ERE EZ DUT SINESTEN ZER BIZI IZAN DUDAN. ZORTEA ALDE IZAN DUT BETI, EGIA ESAN

PIPIII...PIIIII

BARKATU, LUCIO



LUCIO, ZUK EZAGUTU ZENUIEN NIRE AMA, EZTA?





estraperloa. Haurtzaro latz bat, Urtubiaren izaera zizelez landuko duena.

Azkenik, bi denbora-lerroak bat egiten duten ueña oraina da. Lucio karrera-bukaerako lana amaitzen ari den Amaia gaztearekin Parisetik bion herria den Cas-

cantera egiten duen bidaia da aldi hori, eta denbora eta espazio horretan ideologia agertuko da, familia, garai bateko gertakizunei buruzko gogoeta, eta... «Lucioren altxorra».

OHARRA

2017ko abenduan gomendatutako liburua zen hauxe. Sormen-prozesu guztiek, bikaintasunerako joera duten heinean, atzeratzeko arriskua dute. Hori izan da *Gerezi garaia*ren kasua: osasun arazo batzuk direla medio, argitaletxeak eta egileak aurreikusitako epeak ezin izan ditugu bete. Hala ere, eta barkamena eskatu eta gero, ez dago gaitzik onik ez dakarrenik: euskaraz eta gazteleraz bakarrik ez eta katalanez eta galegoz ere argitaratuko da Lucioren biografia berezi hau.

liburu gomendatua

EKAINA

0513004 TXALAPARTA

KOMIKIA

158 or.	17 x 24
Salneurria	22,00 €
Bazkideak	17,60 €



Belatz

Itzulpena: Amaia Apalauza

**GEREZI GARAIA
LUCIO URTUBIAREN
BIZITZARI BURUZKO
ELEBERRI GRAFIKO BAT**

Teoria ederren zale baina, ekin-tza-gizona dugu Lucio Urtubia. Bere bizitza etenik gabeko borroka izan da eta, batzuk kontrakoa uste duten arren, hori da lagatzen digun ondarea, Lucioren altxorra.

Belatzek, hainbestetan kontatutako pasadizoen inguruan luze galdekatu du Lucio, ekintzak, lekuak, pertsonak, gertakizunak, atmosferak irudietan zehaztasunez islatu ahal izateko. Hala, bada, kaskantarraren biografo ofizial bihurturik, irudigile iruindarrak ezagutzen genituen abenturak eta ezagutzen ez genituen beste hainbat pasadizo ere kontatzen dizkigu. Euskaraz estreina-koz, Cascanten emandako haurtzaroa, lehen banku-desjabetzeak, poliziak despistatzeko asmatutako trikimailuak, familia kontuak, Citibank banketxearekin egindako negoziazioa, muga zeharkaldiak... guztia edo ia guztia kontatu digu Lucioi akzioz eta ekintzez betetako orri hauetan. Izan ere, anarkista menderaezin honek dioen bezala: «Ezer egiten ez duen iraultzaile bat apaiz bat besterik ez da».



EGILEA

Mikel Santos, «Belatz» (Iruñea, 1974), ilustrazioa eta komikigintza ditu ofizio. Mikel Urmenetaren sortze-taldearen parte da eta, bai nazio zein nazioarte mailan, hainbat haur-ipu in ilustratu ditu. Horien artean, nabarmentzekoa da Tim Burtonek berak zuzendutako *Pesadilla antes de Navidad* (Penguin) filmaren komikirako egokitzapena. Horrez gain, elkarlanean egindako eta hainbat hizkuntzatan argitaratutako testu-liburutan parte hartu du. Osasuna Fundazioarentzat *90 minutos en el Reyno* eta Nafar Gobernuarentzat *Una aventura en tres tiempos* komikien egilea da ere.

Belatz
EL TESORO DE LUCIO
Una novela gráfica sobre la vida de Lucio Urtubia

5020002 TXALAPARTA

CÓMIC

158 pág.	17 x 24
Precio orientativo	22,00 €
Club	17,60 €



aldaketa maiatzaren 25a baino lehen